



39. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa motorrak berotzen

TOLOSA ▶ Asteazkenean, hilaren 31n hasiko da; 22 abesbatza ariko dira, horietatik bi Euskal Herrikoak

AKUSTIKA ▶ Datorren asteburuan estreinakoz erabiliko dute kontxa akustikoa Leidor antzokian ▶ 2

TOLOSA ▶

EAEk Udal batzordeetan parte hartzea erabaki du ▶ 3

PATZIKU PERURENA ▶ IDAZLEA

«Idaztean hartzen dudana jarrera beti kritikoa da»

‘Dakiguna ikasten’ liburua idatzi berri du leitzarrak ▶ 7

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Etxerategi egungo espetxe politika salatu du ▶ 6





Osakidetzako langileek geldialdiak egin dituzte

TOLOSA ▶ Osakidetzako langileek, Gernikako Arbolako eta San Estebango anbulatorioetakoek, hain zuzen, geldialdiak egin zituzten atzo goizean euren lan-baldintzak hobetzea eskatzeko.

Anbulatorioetako sarreretan elkartu ziren «Negociacion real guztiaz» zioten paperak eskuetan zituztela. Aste honetako bigarrena zen atzokoa, asteartean egin baitzuten lehena. N. L. ▶ 2

SHUYANA EDERGINTZA



BERRIKUNTZA

SISMOFITNESS plataforma
Moldeatu, Gogortu, Indartu
GORPUTZA BERREZI

Iraultza edergintza eta ongizate alorrean.

Proba eza doan azaroaren 8an



GIZARTEA ▶



Osakidetzako langileen geldialdiak

Erredakzioa ▶ Osakidetzako langileek geldialdia egin zuten atzo goizean Tolosaldeko ambulategietako sarreretan. Beraien egoera hobetzea eskatzen dute langileek. N. LATABURU

KULTURA ▶

ESTI EZEIZA

Hemendik egun gutxira, beste behin ere, munduko abesbatza onenen biltoki izango da Tolosako Leidor antzokia. Atzo aurkeztu zuten Tolosako 39. Abesbatza Lehiaketa, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bertan izan ziren, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea; Ana Arretxe, Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria; Kultura eta Euskarako Foru diputatua den Maria Jesus Aranburu eta Jesus Mari Alkain, Kutxako ordezkaria.

Joan den urtean, 38. edizioarekin, Leidor eraberrituaren akustika proban jarri zen. Hala, orduan ondorioztatu zuten, oraindik ere zenbait hobekuntza egin beharra zeudela. Aurtun berriz, aldaketa horiek eman dira, kontxa akustikoa jarri dutea, eta datorren asteburuan estreinakoz erabiliko da.

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren 39. edizioak, bat egiten du Ekinbide Etxearen 40 urteurrenarekin. Hala, hainbeste urte izanda, atzo, denak ere ados agertu ziren esatean, «horrenbeste urte eta gero, erronka nagusia dela orain arteko maila mantentzea».

Munduko ahotsik leunenak hemen dira

Datorren asteazkenean hasiko da 39. Abesbatza Lehiaketa



Jesus Mari Alkain, Maria Jesus Aranburu, Jokin Bildarratz eta Ana Arretxe, atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

Orotara, 22 abesbatzak hartuko dute parte, eta hauetatik bi Euskal Herrikoak izango dira: Gasteizko Luis Dorado Unamuno abesbatza eta Orerenta abesbatza. Biak ere haurren sailean lehiatuko dira.

Joan den urteetan bezala, Tolosan egingo den lehiaketaz gain, abesbatzen topaketak ere izango dira.

39. ABESBATZA LEHIAKETA ▶ EGITARUA

LARUNBATA, URRIAK 27

20:00. Frantziskotarren elizan topaketen kontzertua.

URRIAK 31, ASTEAZKENA

19:30. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa.

AZAROAK 1, OSTEGUNA

11:00. Leidor antzokian, Haur abesbatzen lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen saioa.

16:00. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia.

19:30. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa.

AZAROAK 2, OSTIRALA

19:30. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa.

AZAROAK 3, LARUNBATA

11:00. Santa Klara elizan Musika Erijijsio sailean parte hartuko dutenen saioa.

16:00. Leidor antzokian, Musika Profano sailean parte hartuko duten Ahots Taldeen kantaldia.

20:00. Tolosako udaletxean lehiaketara etorri diren abesbatzeta zuzendari eta pertsonaiei Harrera Ofiziala.

22:00. Tolosako udaletxean lehiaketara etorri diren abesbatza zuzendari eta pertsonaiei Harrera Ofiziala.

23:00-02:00. Beotibar pilotalekuan Abesbatza Dantzaldia, bertan epaimahaiaren erabakia jakitera emango da.

AZAROAK 4, IGANDEA

11:00. Leidor antzokian, Lehiaketako Amaiera Saioa eta sari banaketa. Ekintza *Agur Jaunak* abestuz bukatuko da.

14:30. Udal Ferialekuan Abesbatza bazkaria.

19:00. San Frantzisko elizan, Norvegiako Kammerkoret Nova abesbatzaren kontzertua.

KALE KANTOITIK ▶ JOXEMI SAIZAR

Fabrika eraitsi, etxeak eraiki

Azken urteotan ehunka langile zituzten paper-fabrika eta bestelako lantegi handiak eraisten ikusi ditugu. Ohiko irudia bilakatu da. Guadalupe, Arkaute, Fabrensa, Etxezarreta, Mustad, Papelera Española, SAM, Sacem, San Jose, Arzabalza, Unipapel, Subijana, Luminia, Salvadora, Voith, Gorostidi, ahaztuko zitzaidan besteren bat eta orain La Tolosana. Horietako batzuk beste leku batzuetan birkokatu dituzte. Kasu batzuetan horiek itxi egin dira. Gehienak itxi egin zituzten eta ehunka langile kalean gelditu ziren. Lanik gabe.

Eta zer altxatu dira enpresa horiek zeuden lekuan? Enpresa gutxi, ia batere ez. Kasu gehienetan etxeak eraiki dituzte. Eskualdeko biztanlegoa ez da igo garai horretan. Etxebizitza kopurua bai. Auzo herriak egin dituzte eta jendez bete dira. Bitartean herrietako auzo zaharrak hustutzen ari dira, etxe asko hutsik geldituz.



Aste honetan bertan zozketatu dituzte proiektuan dauden etxebizitza berri horietako batzuk, Voith-Gorostidi eremuan eraikiko dituztenak. Tonbola edo loteriako bonbotik atera dituzte zortedunen izenak. Milaka euro ordaintzeko urtetan hipotekak itota bizitzeko zortea izan dute. Zortegabeak bonboaren barruan gelditu dira. Hurrengo zozketaren zain.

Hurrengo etxe promozioak Igarondo igerilekuko eta Berazubi kiroldegikoa izango dira. Gutxienez hor ez da lanposturik galduko.

pizti domatzailea
haur antzerkia

TOLOSA
urriak
27
larunbata
17:00

L
LEIDOR

sarrera doan

TOLOSA ▶ POLITIKA

Barrenak egungo egoera izan du hizpide

Erredakzioa ▶ Fernando Barrena Batasuneko bozeramaileak egungo egoera politikoa izan zuen hizpide atzo, Kultur Etxean eman zuen hitzaldian. Egoerari buruz ezker abertzaleak duen ikuspuntua emateaz gain, aurrera begira zer pauso «eman behar diren» zehaztu zuen eta «Euskal Herriak bizi duen gatazka gainditzeko ezker abertzalearen konpromisoa» berretsi zuen. I. GARCIA



TOLOSA ▶ POLITIKA

EAE-ANVk udal batzordeetan parte hartzea erabaki du

Izendatutako arduradunei batzordeetako plangintza bidaltzea eskatu dute



EAEk udal batzordeetarako izendatutako ordezkarietako batzuk prentsaurrekoan izan ziren. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Tolosako EAEK Udaleko batzordeetan parte hartzea erabaki du. «Dagoeneko joan dira sei hilabete udal hauteskundeak egin zirenetik eta Tolosako Udaleko alkate eta zinegotzi taldea osatu da eta hauteskunde horietan bigarren indar politikoa izan zen EAEn ordezkari taldea kontuan hartu gabe», salatu zuen EAEk prentsaurrekoan. Honen aurrean, iniziatiba hartu dute eta udal batzordeetarako ordezkariak izendatu dituzte, «bileretan parte hartu eta gure ekarpenak egin eta bideratzeko».

Ekimenaren berri Jokin Bildarratz alkateari eta Jose Luis Unanue Udaleko idazkariari jakinarazi diote egun baten bitartez. Idatzi horretan zehaz-

ten dutenez, izendatutako arduradunen parte-hartzea «inongo trabarik gabe eta normaltasun osoz gauza dadin», batzorde desberdinen plangintza eta egingo diren bilerraren eguna, ordua eta gai zerrenda beraien esku jartzea eskatu dute. Prentsaurrekoaren bidez ere, herritarrei ekimenari buruz jakinarazi nahi izan dute, gairen baten inguruan ekarpenik egin nahi izanez gero, izendatutako ordezkariarengana jo ahal izateko.

EAEK Udalean parte hartu ahal ez izateak, «bi mila tolosarren aukera politikoa udal jardueratik kanpo uzten du», diote. «Parte hartzeko eskubidea ukatu egiten dio erabat zilegia den indar politikoiari».

Egoera horren erantzukizuna «alderdi politikoen legea

sustatu eta onartu zutenena baldin bada ere», Jokin Bildarratz alkateari eta EAJ alderdiari ere erantzukizuna egotzen diote, «egoera diskriminazionala eta ez demokratikoa bere horretan mantentzean».

ARDURADUNAK ▶

- Koordinatzailea.** Antton Izagirre.
- Gazteria.** Eider Elduaien.
- Hirigintza.** Hektor Espin.
- Gizarte Ongizatea.** Silvana Ostiza.
- Ingurumena.** Dabid Miangolarra.
- Kultura.** Manex Kortajarena.
- Kirola.** Aitor Iztueta.
- Emakumea.** Rebeca Calvo.
- Sozio-ekonomia.** Begoña Aristi eta Koldo Maiz.
- Euskara.** Antton Izagirre.
- Aurrekontuak.** Antton Izagirre.

Udalan hartzen diren erabakietan EAEK parte hartzeko aukerarik ez izatean, «erabaki horiek ez dute herritarren ordezkari talde osoaren erabateko bermea eta zilegitasunik», gaineratu dute.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GIZARTEA ▶

Altuna eta Atxaga Jakiunde Akademitan

Eusko Ikaskuntzak Jakiunde sortu du, Zientzia, Arte eta Letren Akademia, «maila goreneko erakunde aholkularia» eta «euskal gizartearentzat erreferentziatzeko foroa» izateko helburuarekin. Atzo egin zuten aurkezpena Donostian. Jakiunden sona handiko 25 kide hartuko dute parte, tartean, Jesus Altuna antropologo berastegiarrak eta Bernardo Atxaga idazle asteasuarrak.

LEITZA ▶

Garagardo Pesta bihar Torrea tabernan

Bihar Torrea tabernan urtero bezala Garagardo Pesta egingo dute. Honen barruan, afariaz gain, Dj Bertsoeren musikaz gozatzeko aukera izanen dute bertaratzen direnek. Txartelak 23 euro balio ditu eta gaur amaitzen da hauek eskuratzeko epea.

ASTEASU ▶

Oinkari dantza taldearen emanaldia, gaur

Villabonako Oinkari dantza taldeak Aspaldikotik bere azken lana aurkeztuko du gaur Asteasuko Usarrabi pilotalekuan, Kultur Jardunaldien baitan. Zortzi musikarienganduz osatutako Oinkari dantza taldeko dantzariak Juan Kruz Igerabidek prestatutako sargin misteriozko ipuin baten murgilduko dira, dantza izango delarik emanaldiaren ardatza. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da eta sarrera doan izango da.

iragarki laburrak ▶

- SALGAI**
Autoa. Egoera oneko Peugeot 206 GTI, 16 balbulakoa. 4 urte. 656 41 02 80.
- Pottokak eta traktorea.** Pottoka kalifikatuak eta diru-laguntzarekin, eta traktorea Agria 9900, egoera onean. 692 16 61 80 eta 692 54 49 36.
- LANA**
Sukaldaria. Tolosan sukaldariko pertsona bat behar da ostiral eta larunbat gauetarako. 699 71 02 73.

POLITIKA ▶

«Euskal Herriak 'aski da!' oihukatzea» lortu nahi du Etxeratek

Elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, azken ostirala izaki, bi eskualdeetako ohiko herrietan eta orduetan



Hilabetero bezala, Etxeratek elkarretaratzeak deitu ditu azken ostiralean ohiko herrietan. NEREA URBIZU

ASIER IMAZ

Hilabeteko azken ostirala izaki, Etxeratek, euskal errepresaliatu politikoen senitartekoek, elkarretaratzeak antolatuta dituzte gaur bi eskualdeetako hainbat herrietan, ohiko ordu eta lekuetan.

Gogor salatuko dute bertan «egun inposatua diguten errealtate gordina», izan ere, Etxeraten hausnarketan, «espainiar eta frantziar gobernuak, gure eta gure senideen biziek jolasten jarraitzen dute. Bi estatuen espetxe politikak hil egiten du, eta egun indarrean dituzten salbuespen neurrien, gure senide gehiago hil di-

tzakete». Elkarretaratzearen amaieran, Etxeratek hilabete honetarako prestatu duen idatzia plazaratuko du. Bertan, egungo egoerari buruzko hausnarketa egingo dute, euren bizipenetik. Azterketa honen ostean, Etxeratek atera dituen ondorioak zein izan diren azalduko ditu. Azkenik, gerturatzaren direnei eta euren ikus-puntuarekin bat egiten dutenei, egoera horrekin nola amaitu azalduko diete.

«Inpunitatearekin amaitu»

Euskal «errepresaliatu politikoen» eta euren sendi eta lagunen egunerokotasuna, «inpo-

saturiko errealtate gordin» bezala deskribatu dute Etxeratek. Honekin batera, espainiar eta frantziar estatuen espetxe politika salatuz: «inpunitate osoarekin ezartzen dizkiete gure senideei gaixotasun larriak, baita heriotza eragiten dieten neurri kriminalak ere; bizi arteko espetxe zigorak, isolamendua, urruntasuna eta osasun asistentzia eza, esaterako. Neurri horiek, senide eta lagunok ere gogor kolpatzen gaituzte. Egitera behar izan diren milaka kilometroen ondorioz, istripuak eta izugarriko odoluste ekonomikoak jasaten baititugu preso dituzten gure senideak bisitatu

ahal ditugunok. Asko dira ere, behartutako kilometro horiek guztiak medio, beraien senide presoak ikusi gabe urteak daramatzen. Urteetan aurrera egindako ala gaixorik diren gurasoak, seme-alabak, arreba-anaiak, lehengusuak edo lagunak. Berez izugarrikoa den sufrimendua areagotu egiten digute bi estatuek, gu geu ere kolpatuz».

Euskal errepresaliatu politikoen senitartekoek, «egoera honekin amaitu egin behar dugula» azalduko dute. Horretarako, herriz herriko dinamizazio bultzatzearen beharra azpimarratuko dutelarik. «Jasaten ari garen errealtate gordin honekin kezkatuta gauden herritar guztiok, presioa egin eta konpromezuak hartu behar ditugu. Bakoitzak bere herrian lan egin behar dugu, errepresaliatu politikoen eskubideen defentsan. Estatuen inpunitatearen errepresioaren aurka. Horrela lortuko dugu Euskal Herri osoan aski da! oihukatzea».

Gaurko elkarretaratzeetan, «konpromezuak hartzearen eta herrietan lan egitearen» aldeko mezua zabalduko dute, helburu jakin batekin: «preso gaixoak eta kondenak beteak dituztenak askatzea behartze-ko bi estatuek».

AZKEN OSTIRALA ▶

Gaur hilabeteko azken ostirala denez, bi eskualdeetako hainbat herrietan, Etxeratek deituta, elkarretaratzeak egingo dituzte ohiko orduetan eta lekuetan.

URRIAK 26, GAUR

Tolosa. 19:30ean.
Ibarrak. 19:30ean.
Alegia. 19:30ean.
Amezketak. 19:30ean.
Anoeta. 19:30ean.
Lizartak. 20:00etan.
Ikaztegiak. 20:00etan.
Villabona. 20:00etan.
Zizurkil. 20:00etan.
Asteasu. 20:00etan.
Aduna. 20:00etan.
Leizak. 20:00etan.

GAZTELU ▶

Jubilatu Eguna etzi ospatuko dute adinekoek

Gazteluko Udalak Jubilatu Eguna antolatuta du etzizko. 12:00etan meza egongo da elizan eta ondoren dantzarien erakustaldia. 14:00etan bazkaria egingo dute jubilatuek eta Muxarra elkartearen opari banaketa burutuko da. Bazkalostean, bertsolariek eta trikitilariak alaituko dute igandeko Jubilatu Eguna Gaztelun.

IBARRA ▶

Ibarrak areto futbol taldeak etzi jokatuko du

Ibarrak areto futbol taldeak etzi jokatuko du ligako partida Pajarin FS talde kantabriararen aurka. Norgehiagoka igandean 12:00etan izango da, ondorioz ibarrak autobusak 07:00etan hartu beharko dute. Taldeak azken partidaren emandako irudi pataz ahaztu eta zerbait ekarri nahi izango du Cabazon de la Sal (Kantabria, Espainia) herriitik. Horretarako, Txubel entrenatzaileak, Igor Zabaloren hutsunea izango du.

AMEZKETA ▶

Altuna I.ak ezin izan zuen garaipena lortu

Altuna I.ak ezin izan zuen asteartean erremonete partida irabazi Etxaberekin bikotea eginaz. Agirresarobe eta Eizaguirre izan ziren beraz nagusi. Partida lehiatua izan zen baina amezketarra garai-penetik lau tantura geratu zen. Eizaguirrek maila handia eskaini zuen eta azken txanpan lasaitasunez iritsi ziren 40. tantura. Norgehiagoka 40 eta 36 amaitu zen.

urteurrena ▶



Manu Aranburu Olaetxea (2004ko urriak 26)

Ametzak zuriu ditu lainoak
Euriak idortu ditu denborak
Honen keinua dakust ispiluan
Ohiartzun isila dantzut gogoan
Zimur berri bat dakart aurpegian
Irripar egingo dudan bakoitzean
Hitaz oroitu nauk

hilberria ▶

Francisco Etxebeste Elizondo (Jauna)

Atzo hil zen, Errenterian, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere emaztea: Miren Mendarte Casares; seme-alabak: Mertxe eta Jorge Gimenez, Pedro Juan, Olatz, Mikel eta Elena Gaztañaga, Lourdes, Eli eta Fernando Vilariño, Irene eta Pabli Ziganda, Mirentxu eta Valentín Dehesa, Josune, Gorka eta Ainhoa Errandonea; arreba: Maria Pilar; bilobak: Iñigo, Ainitze, Olatz, Amets, Oier, Cristian, Maribel, Ines, Eider, Maddi, Maddalen, Beñat eta Mattin; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR, arratsaldeko ZAZPIETAN, FATIMAKO ANDRE MARIA (Kaputxinoak) parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

OHARRAK ▶ Gorputza Zentolen Beilatokian egongo da ostiral eguerdiko hamabiak arte.

Helbidea ▶ Sanboena 22-4. eskubia

ERRENTERIAN, 2007ko urriaren 26an



HILBERRIAK
URTEURRENEN
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agerituko da

HITZAK GIPIZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

PATZIKU PERURENA ▶ IDAZLEA

«Idazten dudanean hartzen dudan jarrerara beti kritikoa da»

Patziku Perurenak joan den asteazkenean 'Dakiguna ikasten' izeneko bere azken lana aurkeztu zuen Donostian



NAIARA GARZIA

1985. urtean *Joanes d'Iraola-ren poema bilduma* argitaratu zuenetik, Patziku Perurenak (Leitza, 1959) hainbat liburu idatzi ditu. Aste honetan bertan bere azken lana aurkeztu du, *Dakiguna ikasten* (Alberdania).

8 urtetan idatzitako artikulak bildu dituzu liburu honetan. Hauek guztiak liburu batean biltzeko ideia noiz edo nola bururatu zitzaizun?

Inguruan gertatzen zaizkizun mila huskeriaz zeure sentiera partikularra azaltzeko grina, hori da gure gaitza. Eta zure sentiera interlokutorerik gabe gelditzen bada, ba, zokoa eta isilean pilatu egiten zaizkizu kontuak. Gero, bere sentiberatasun guztiarekin inor heldu bazaizu kontu eske, ba, politenak bereizi, zaku batean sartu, eta putreentzako haragi bihurtu. Ez du beste misteriorik ofizio xeble honek.

Orokorrean zer gai jorratzen dituzu artikuluetan eta zer jarrerarekin?

Argiak begian jo eta bihotza pizten dizunean sortzen den edozein gai: ura, mina, egia, lura, sexua, heriotza, porlana... Idazten dudanean hartzen dudana jarrerara, beti kritikoa da, poetikoa, alegia, eder minen batek ukitutakoa, Oteizak esanen lukeen gisan, dalomismoa ez den guztia.

Izenburuarekin zer azaldu nahi izan duzu?

Bada liburuan bertan hori argitzen duen artikulua, izen bereko eta sarrerako aipua ere zentzu berean doa: «Ohitzea, jadanik ez izaten hastea da». Deus ba ote gara, orduan? Deus ez eta festa huts, behar bada...?

Unamuno eta Baroja ere beste artikuluetan oinarritzat hartzen dituzu, Miguel eta Pio ustarran izenekoan.

Zer da pertsona? Feministek hain maite duten izen neutro hori, zer da...? Inork ez du sufritzen eta gozaten esaten duenik, eta hala ere, uste dizu, esaten duen hori baino askoz gehiago gozaten eta sufritzen

duela, bestela ez bailuke agorantatuko zutik... Hori da pertsona enpirikoa eta etimologikoa ere. Eta ez ni, zerbait zinez esaten hasi ordu, hitzetan trabatu eta neure ahoz barneko ilunbera amiltzen naizena. Trantze hori jaso dut hor.

Ongi portatu izeneko artikulua bat ere idatzi duzu.

Bai gauza zaila ongi portatzea...! Zein da gaur gizagoi edo zein gizalohi, eh? Hitz ederrok ere Mirandek eta biok erdi bana asmatuak dira, baina, euskal filologoak ez dira ongi portatu gurekin. Baina, horretaz ere, esaten dut zerbait beste artikulua batean. Alfer alferrik, klara.

Arima txurrigereskoa artikuluari buruz Inazio Mujikak irainaren neurria iristen dela dio.

Arima txurrigereskoa. Begira, Leitza bada kale berri famatu bat jet-set deitzen diotena. Kasik egunero pasatzen dut nik haruntz-honuntz. Ba, arima horri esaten diot nik txurrigeroa, horri! Baina, nork suma, nere zentzu xalok sobran dutena...!

Gorrotari buruz ere idazten duzu. Zergatik?

Atxagak, Juaristik, eta beste hainbat poetek aitortu didate gorrotoaz oraindik irakurri duten originalenetakoa dela. Baina, Gil Berak dio, eta nik ere halatsu, arunt kalitate eskaseko gorrotoa bizi duela herri honetara. Eta gorrotorik fintzen ez duenak oinazetik ez ezin findu.

Salakerarekin edo poesiarekin sentitzen zara gusturago?

Nik uste, nire zera guztiak badutela halako ukitu poetiko bat, ukitu inoxente bat, objektiboki tasatu ezinezkoa, ez dakit ba nola esan...

Zein da azalaren esanahia?

Batzuk eliz kutsua hartu omen diote. Zer ote da irudimena...? Niretzako plazerrik humanoenaren iturria da, bere zentzurik ugarienean. Harrizko zirrikitu estetik barrenera zabaltzen den argi zahar hori, hitzez bustia. Edo gure usarioko natura bera, maiteminarren argitan urtu, eta umatokirantz atsegin ez zabaldua.

BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu Donostian, Urolan eta Tolosan.

Lan baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara: 943-30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektroniko honetara: lanpoltsa@etxeraino.net.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 26a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsalde beroena **12** hotzena **8**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsalde

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (balantza argizteko, harpidetun egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Mediku etxean odol-ematea izango da arratsaldean. Bi orduz egongo dira bertan eta herritarrak ez direnak ere joan daitezke.

Alegia. Zazpi astoren gainean bertso eskolak bertso afaria antolatu du azaroaren 9an Intxurre elkartearen Inigo Izagirre eta Julen Zulaikarekin. Izen-ematea, Etxeberriaren, Ixkiñan, Hilarion, Arruena, Kafe, Intxurre elkartearen edo Jubilatuenen 15 eurotan.

Asteasu. Oinkari dantza taldearen eskutik *Aspaldikotik* emanaldia ikusi ahal izango da 22:30ean frontoian.

Ikaztegieta. Gorputz-higienearen eta gorputza zaintzearen garrantziaz hitzaldia Ikaztegieta liburutegian 17:00etan. Sarrera dohainik.

Orexa. Fermin Zelaieta, J. Mari Arretxea, J. Mari Jarajuria eta J. Luis Aitzugarai *Euskal artzainak Ameriketan* izeneko hitzaldia eskainiko dute Orexako udaldebeko ganbaran 21:30ean, Kultur Hamabostaldiaren baitan.

Tolosa. Latzen eta Governors izango dira Tolosan, beraien doinuakin Bonberenea astintzen. Kontzertua 22:30ean hasiko da.

Villabona-Aiztondo. Aduna, Zizurkil eta Villabonako emaleek odola emateko aukera izango dute Villabonako anbulategian 18:30etik 20:30era.

ZINEMA


Tolosa. *La carta esferica* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30ean eta astelehenean 20:30ean.

Tolosa. *¿Y tu quien eres?* filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
 Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112..

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Oargi mendi elkartearen irteera Pirinioetara

TOLOSA ▶ Santu Guztien Eguna dela eta, datorren asteko jaia egunak aprobetxatuz, Tolosako Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du, asteazkenean abiatu eta igandera bitarte. Pirinioetako Aneto gailur ezaguna —irudian— igoko du oraingoan mendizale taldeak. Asteazkenean Tolosatik aterako dira: ostegunean, berriz Renclusa aterpera joango dira. Ostiralean Aneto mendia igoko dute (3.404 m.); larunbatean Estos aterpera joango dira eta azken egunean, igandean, Perdiguerora igoko dira (3.222 metro). Interesatuak informazio gehiago eska dezakete 637 830380 telefono zenbakian. Azaroan ere antolatuko dituzte ekitaldiak Oargitik, argazki lehiaketa eta mendi materialaren azoka, hain zuzen. HITZA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

EUSKAL HERRIAN ZEHAR MENDI IRTEERA **Urriak 28 Igandea**

ZUBEROA • Otzaurteko zubia, Lakartxela azpitik

Larunbatean, 15:00etan Ibarako plazan geratuko dira.

Oharra: informazio gehiago 691563204 telefonon

ANTOLATZAILEAK: BAI EUSKAL HERRIARI eta HAITZETAN RAJU

G

Urriak 27 **FIJAR, Euzkoan Amateko**

Urriak 28 **ZUMAIA, Euzkoan Amateko**

www.igurtziak.com

hitza

laster tentagarriago...